

ERRAMUN OSA

“Ezin fida daiteke -zenbaitek, areago erosokeriaz beste ezertaz baino, egiten duen bezala-
dekretuaren ondorio miresgarrietan, ezta ofizialkidetasun nahiz ofizialtasunezko aitopenetan ere.
Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala,
hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe,
iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...)”

“Hizkuntza ez da hor goian bi hegalez airean dabilen espiritu mehea
(hots, gorputzik ez duen sistema baten eskema soila), baizik eta hemen behean,
gizatalde batean, oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat:
gizartean bizi da, hiztunengan; hiztunak ditu jasaile, hiztunek bizi dute (...)”

Koldo Mitxelena

Euskara biziberritzeko asmoz, pasa den mendeko laurogeigarren hamarkadan abian jarritako hizkuntza politikak -zehatzago, hizkuntza politikez jardun beharko genuke, desberdinak izan baitira euskararen lurraldeetan abian egon direnak- onenak eman dituela, ziklo bat amaitu dela, euskararen berreskurapena indarberritzeko paradigma aldatzea komeni dela, duela zenbait urte aurreikusi ez genituen gertaera eta egoera berriak bizi ditugula -biziberritzea bera galgatzan dutenak- eta abar gero eta maizago azaltzen dira nonahi eta nolanahi. Iraganean ez bezala, egun ditugun kezka horiek ez dira euskara gainbehera antzematen dugulako, indarberritzea moteltzen ari den susmoa zabaltzen ari delako baizik.

Garaibatean, iadenaeginkizunzegoenean, elebidunen kopurua haztea, bai eta erabilera-eremuak irabaztea are “errazagoa” zatekeen. Izan ere, hezkuntzan erdarazko irakaskuntzak pisu erabakigarria zuen, administrazioan eta hedabideetan euskararen presentzia urria

BEGIRADAK

zen eta abar. Egun euskararen egoera ez da homogenea euskararen lurralde guztietan, ez eremu administratiboan artean, ez eta eremu administratibo bakoitzeko herri zein eskualde batetik bestera ere. Erabilera-eremuetan ere desberdintasun handiak antzeman daitezke, hiztunen dentsitatea gorabehera.

Irakaskuntzan egin den ahaleginari esker, EAEko gazte gehienak elebidunak dira. Hor-tik dator, nagusiki, elebidunen kopuruan gertatu den igoera izugarria, duela zenbait urte pentsaezina zena... baina, aldi berean, beste fenomeno bat ere gertatu da. Jaiotze-tasa txikiagotzearen eta, aldi berean, bizi-itxaropena igotzearen ondorioz, gazte-elebidun berrien pisu demografikoa gero eta txikiagoa da eta hala izaten segituko du denbora-tarte luze

batean. Euskararen berreskurapena jazokizun urbanoa da... eta herri eta hiri handietan dago euskara egoerarik zailenean, gizarte-bizitzan presentzia urria duela. Horrela, gazte elebidunek bi errealitate antzematen dituzte, batetik, euskara irakaskuntzako hizkuntza nagusia izatea, eta bestea, eskolatik kanpo gaztelaniak duen presentzia ia erabatekoa, euskararen erabilera errazten ez duena eta jarreretan eragiten duena.

Euskarazko irakaskuntzak Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian duen presentzia urria kontuan hartuz, gazteen adin-taldeetan elebidunen kopurua hazteko aukerak ugariak dira. Horretarako, ordea, besteak beste, Nafarroan gertaturiko gobernu-aldaketa iraunaraztea ezinbestekoa izango da, bai eta Ipar Euskal Herrian sortu berri den Euskal Elkargoak orain arte egin diren ahaleginak biderkatzea ere... baina EAEn gertatzen ari den fenomenoaren eremu horietan ere errepikatuko da, lehenago ala geroago. Horrexegatik, hizkuntza politikarik aurreratuen eramaten ari garenok gogoeta egin behar dugu egun gertatzen ari diren etenei, fenomeno berriei eragingarritasunez erantzun eta biziberritzea atzera egingo ez duen norabidean jarriko badugu.

Sasoi batean, administrazioan euskaraz zekitenak gutxi batzuk baino ez ziren. Orduan, enplegatu publikoen euskarazko prestakuntzari lehentasuna -horretan asmatu zela iruditzen zait- eman zitzaion, horri gehitu, denboraren joanean, gizartean elebidunen kopuruak gora egin ahala, euskaraz dakitenak askotariko zerbitzuetan ari direla gaur, gau eta egun. Nolanahi ere, horrek ez du ekarri jauzi kualitatibo bat euskararen erabileran. Aitzitik, gaztelaniaz funtzionatzen segitzen dugu, oro har, eta itzulpenak gehiegizko pisua dauka gure herri-erakundeen jardunean. Errealitate soziolinguistikoaren aldaketak sasoi bateko inertziak mugiaraztera eraman behar gaitu, gero eta ugariagoak izango diren atal elebidunak -nagusiki euskaraz funtzionatuko dutenak- identifikatzea bultzatuz... eta, halakoetan, garrantzi handikoa izango da herri-erakundeetan ari diren ardura-dun politikoen euskararekiko ezagutza, jarrera, bai eta borondatea ere.

Hitz egin dezakegu aisialdiaz, lan-munduaz, askotariko zerbitzuez, errealitate soziolinguistiko aintzat hartzen ez duten hedabideez, horietako hainbat herri-erakundek bideraturiko publizitateari esker bizi arren... bada garaia

guztiei gizarte erantzukizuna eskatzeko, euskararen biziberritzea denon ahalegina, ekarria behar duela azpimarratzeko.

Ez gaude sasoi batean baino okerrago. Gure hizkuntza-erkidegoa berrosatzeko ahalegina hazkunde baten kronika da eta, nazioartean miresten eta berariaz aztertzen dena... Eta aukera berriak ditugu, biziberritzeari bultzada berria, erabakigarria emateko, asmoz eta jakitez jarduten badugu. Hizkuntza-politikaren ardatzak osotasunez aztertu behar ditugu, interakzioan ari diren eremuak kontuan hartuz, gure dentsitate demolinguistiko askotarikoak aukera desberdinak eskaintzen dizkigula eta toki batean abian jartzen eta funtzionatzen duenak, ondoko tokian emaitza berberak zertan ekarri ez dituela jakitun... hausnartu behar dugu, bai! Hogeita bost urte barruko euskararen herria, Euskal Herria buruan daukagula.

Aukera berriak ditugu. Batetik, euskararen lurraldeetan lanean ari diren herri-erakundeak. Gure historian, lehenengo aldia da lankidetzarako horren lurralde zabala irekitzen zaiguna. Aukera hau baliatu behar dugu, ezinbestekoa den pazientziarekin, erritmoak eta begirunea elkarri gordez. Bestetik, herritarren aldeotasun zabala dago, garai batekoa baino are zabalagoa, hori behar dugu zaindu eta zabaldu, dezakegun neurrian... aitor dezagun jauzi kualitatibo bat emateko aukerak daukagula, errealitate demolinguistikoak -tartean, euskaraz nagusiki funtzionatzen duten eremuak zainduz- aukera berriak irekitzen dizkigulako eta herritarren atxikimendua ere badagoelako! Oinak lurrian ausartak izateko garaia iritsia da!

Eta... aurrera begira egin beharreko horretan, askotariko iritziak jaso ditugu Hermes aldizkariaren ale berezi honetan, ekainaren 14an Sabino Arana Fundazioaren egoitzan eginiko mintegia abiapuntutzat duen ale berezi honetan. Beharbada, zenbaitzuek desberdintzen gaituen horretan jarriko dute indarra, horri emango diote berebiziko balioa. Nik, ordea, begirada bakoitzean urratsak egiten segitzeko, euskara biziberritzen jarraitzeko elementuak antzematen ditut. Zoru komun delako hori behar dugu eraiki, zimentarri bilakatu euskarak etorkizunean bere tokia aurki dezan hizkuntzen artean, handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Hala bedi!